

Matraka

16.1.- Binaka jarrita, entzungaia bi zatitan banatu:


- Ikaskide batek lehen zatia entzungo du, eta besteak bigarrena. Ondoren, kontatu elkarri ulertu duzuen.
- Entzun audioa osorik eta egiaztatu bion artean ea testua ongi ulertu duzuen.

16.2.- Kevin eta Tasio astronautek berrogei edo berrogeita hamar urte egin dute atzera beren solasaldian, eta garai bateko albisteak ekarri dituzte gogora.

- Irakurri beheko albiste hauek eta binaka ordenatu kronologikoki. Ondoren konparatu taldean.



- Mikel Laboaren heriotza
- "Prestige" petrolontziaren istripua
- Balkanetako gerra
- Berlingo harresia erortzea
- Irun eta Hondarribiko alardeetan istiluak sortzea
- Guggenheim museoa eraikitzea Bilbon
- Bin Ladenen heriotza
- Tailandiako tsunamia



- Albiste horietatik zein da zuk ongi gogoratzen duzuna? Zergatik? Komentatu taldean.



16. atala: Taldean

Transkripzioa (03:25)

- K- Aizu, eta zer egin behar dugu katxarro horrekin?
T- Ze katxarro?
K- Ordenadore zentrala edo dena delako hori...
T- Hal-ione!
K- Joder, baina ez zegoen izen normalago bat?
T- Baina ez al duk ikusten Hal 9000ri eginiko omenaldia dela?
K- Hal zer?
T- Ez diat sinisten ez dakiala Hal 9000 zer den!
K- Bada, zure herriko agro-diskoteka horietako baten izena dirudi.
T- Hal 9000, 2001 Espazio Odisea.
K- Baina zer gertatzen zaizu, Tasio? Zuri ere ordenadore puta horri bezalaxe zirkuituak frijitu zaizkizu?
T- Joder, 2001 Espazio Odisea, Kubricken pelikula mitikoa.
K- A, a, hori ja ez, berriro zinez hizketan ez, nahikoa... Banoa...
K- E, hitza eman didazu ez didazula zine matrakarik emango.
T- Lasai.
K- Matraka.
T- Zer pasatzen duk orain ? Ez diat ezer esan.
K- Ez, besterik gabe, *matraka* hitza gustatzen zaidala.
T- Ez duk ba oso euskalduna, e?
K- Akaso horregatik gustatzen zait. Diskoteka batentzat izen ederragoa, *Matraka*. Hal 9000 baino hobea!
K- Tasio, Tasio, Hal-ione pizten badugu?
T- Iurretan baimenik eskatu gabe?
K- Bueno, total, apurtuta dago. 2016. urtetik honako informazio guztia galduta, besterik gabe, iraganeko museo batera joatea bezalakoxea izango da.
T- Ez zekiat. Nik, badaezpada, baimena eskatuko nikek.
T- Baimena eskatu behar...
K- Baaaaa, Tasio, ez izan hain marijusti! Ikusi hemen pantailan, gaurkoa bezalako urriak 3an gertatutako hainbat kontu.
T- Baina noizko urriak 3an?
K- 2013ko albiste hau, adibidez: <<Lampedusako uhartetik gertu, 500 bat etorkin afrikar zeramatzan barku batek su hartu eta hondoa jo du. 150 pertsona soilik atera dira bizirik>>.
T- Joder, ez al zegok albiste alaiagorik, e? Bila ezak gure Euskal Herriarekin zerikusia duen notizia bat...
K- <<2009. Alakrana izeneko atunontzi euskalduna somaliar piratek bahitua>>
T- Hara! itsasoetan atuna zegoen garaikoa!
K- Bada, nik beti pentsatu dut pizifaktorian propio sortutako espeziea zela.
T- Keba, hi, itsas zabaleko atuna esistitu huan orain dela ez hainbeste. Piratena, ordea, nik uste nian aspaldiagoko kontua zela.
- Bada, kuriosoa iruditzen zait bi albiste horiena.
T- Zer ba?
K- Bada, denboran eta espazioan oso gertu daudelako bata bestearengandik. Baina ze ezberdinak diren!
T- Ez diat putzik ulertzen.
K- Azken finean, bi albisteen protagonistak barkuetan doazen afrikarrak direla. Lehendabizikoan, atunen elikagai gisa amaitu zuten; bigarrenean, ordea, beren itsasoetatik atun-ustiaketan zebiltzan atunontzien jabe...
T- Jabe ez, indarrez hartu ziaten.
K- Ez eman matrakarik. Afrikarra bazina, bietatik zein aukeratuko zenuke zuk?
T- Horrela jartzen bahaiz, argi zegok, ez?
K- Beti jakin dut piratita bat zinela, Tasio.

Erantzunak

16.2.-

- 1.- Berlingo harresiaren erorketa (1989)
- 2.- Balkanetako gerra (1991)
- 3.- Irun eta Hondarribiko alardeetan istiluak (1996)
- 4.- Guggenheimen eraikuntza (1997)
- 5.- Prestige-n istripua (2002)
- 6.- Tailandiako tsunamia (2004)
- 7.- Mikel Laboaren heriotza (2008)
- 8.- Bin Ladenen heriotza (2001)